

Proiektuetarako jarduerak | Inklusioa

Bigarren Hezkuntza. 12 - 18 urte

Hemen guztiok kontatzen dugu!

	Bigarren Hezkuntza 12 - 18 urte
	Maila Baxua
	Denboralizazioa 12 saio
	Kideak 4 - 6 kide

JARDUERAREN DESKRIPZIOA

Ikasleek kulturak barne hartzen dituen arloetako **Horma-Irudi Kolaboratiboetan** parte hartzen dute: Gure hizkuntzak, Gure festak, Gure erlijioak, Gure ohiturak, Gure Gastronomia... Kide den lurralde bakoitzak horma-irudi bakoitzean arlo kultural horretan bere lurraldea nolakoa den azaltzen dituzten irudiak eta testu laburrak gehituko ditu.

Hormetan landuko den **arloan kultural bakoitzari buruzko iritzi-foro bat irekiko da TwinSpace-n**. Foroetan ikasleek galderak egin eta erantzungo dituzte.

Horma-irudi kolaboratiboak amaitu eta gero, inprimatu eta ikastetxean erakutsiko dira. Horma-irudi artistiko bat osatuko da, collage baten antzekoa.



JARDUERAREN XEDEAK

1. Aniztasun kultural eta soziala ezagutu eta ulertzea, elkarriketa eta bakea sustatuz
2. Tolerantzia, errespetua, integrazioa eta aniztasun kulturalaren moduko balio demokratikoen esanahian sakontzea
3. Europako lurraldeen artean elkarlana sustatzea arazoak elkarrekin konpontzeko

JARDUERAREN GARAPENA

1. Fasea: Prestatzea

1. Urratsa. Erregistroa

Irakasleek ikasleak proiektuaren TwinSpace-an erregistratuko dituzte eta sartzeko gakoak dituen dokumentua gordeko dute. Gero ikasle bakoitzari berea emango diote.





2. Urratsa. Lurralde bereko eta nazioarteko taldeak sortzea

Kide den lurralde bakoitzeko doze koordinatorazaleek haien ikasleak 4 edo 5 ikasleko taldeetan antolatuko dituzte. Talde bakoitzari proiektuan landu beharreko gai bat esleituiko diote.

Hainbat metodo daude taldeak osatzeko:

- Banaketa ekitatiboa egiteko metodo bat zozketa da.
- Halaber, ikasleek haien interesen arabera hauta dezaten proposa daiteke, eta lantzeko nahikoa ikaslerik ez egoteagatik beharrezkoa bada, zozketa egitea erabaki.

Ikasle-talde bakoitza alderdi bat ikertu eta dagokion Horma Kolaboratiboan parte hartzeaz arduratuko da.

Horma bakoitzean lan egingo duen lurralde bakoitzeko taldeekin taula informatibo bat egingo da.

Horrez gain, jardueran eman beharreko urratsen garapena bideratu eta prozesua koordinatuko duen irakasle-tutore bat edo pare bat izendatuko da.

Muros Colaborativos Países socios	Nuestras Lenguas TUTOR:	Nuestras Fiestas TUTOR:	Nuestras Ciudades TUTOR:	Nuestras comidas TUTOR:	Nuestras costumbres TUTOR:
ALEMANIA	Grupo: Alumno1 Alumno 2 Alumno3 Alumno4	Grupo: Alumno1 Alumno 2 Alumno3 Alumno4	Grupo: Alumno1 Alumno 2 Alumno3 Alumno4	Grupo: Alumno1 Alumno 2 Alumno3 Alumno4	Grupo: Alumno1 Alumno 2 Alumno3 Alumno4
NORUEGA	Grupo: Alumno1 Alumno 2 Alumno3 Alumno4	Grupo: Alumno1 Alumno 2 Alumno3 Alumno4	Grupo: Alumno1 Alumno 2 Alumno3 Alumno4	Grupo: Alumno1 Alumno 2 Alumno3 Alumno4	Grupo: Alumno1 Alumno 2 Alumno3 Alumno4
ESPAÑA	Grupo: Alumno1 Alumno 2 Alumno3 Alumno4	Grupo: Alumno1 Alumno 2 Alumno3 Alumno4	Grupo: Alumno1 Alumno 2 Alumno3 Alumno4	Grupo: Alumno1 Alumno 2 Alumno3 Alumno4	Grupo: Alumno1 Alumno 2 Alumno3 Alumno4

3. Urratsa. Orriak prestatzea

Irakasleek hainbat orri sortuko dituzte TwinSpace-n proiektuaren garapena antolatzeko. Honakoak edukiko ditu:

- **Proiektuaren planifikazioa** jasoko duen orria, xedeak, denboralizazioa, egin beharreko jarduerak eta parte hartuko duten lurralde eta ikastetxeak zehaztuko dituena.
- **Lurralde bakoitzeko eta nazioarteko ekipoen taula** eta tutore eta Horma Kolaboratiboaren koordinatzailea izango den dozentea duen orria.
- Horma Kolaboratiboentzako **orri bana**.
- Talde bakoitzaren azpi-orrialdeak. Azpi-orrialdeen erabilera talde bakoitzari murrizt dakiok, hautatzen joaten diren informazioa eta irudiak jasotzeko.



4. Urratsa. Materialak karpetak prestatzea

Dozentek TwinSpace-ko **Materialak** moduluan karpetak sortuko dituzte:

- Proiektuaren **Dokumentuak** jasotzeko karpeta bat
- Parte hartzen duen kide bakoitzarentzako **Irudiak** karpetak
- **Hormetarako Irudiak** karpeta, amaierako produktu gisa
- Ikastetxe bakoitzean proiektua nola garatu den agertzen duten **Irudiak eta Argazkiak** karpeta



5. Urratsa. TwinSpace-n iritzia emateko Foroak sortzea

Dozente koordinatzaileek horma kolaboratiboetan jorratuko diren gaiei dagozkien Foroak sortuko dituzte. Haietan ikasleek proiektuan kide dituzten gainerako ikasleei galderak egin eta erantzungo dizkiete ekipoei lantzen dituzten arlo kulturekin lotutako kontuei buruz.

6. Urratsa. Horma kolaboratiboak sortu eta TwinSpace-n txertatzea

Horma kolaboratiboaren arduraduna den dozentek koordinatzaile bakoitzak **horma digitalak sortzeko programa batean sartuko da, Padlet edo antzeko bat**, erregistratuko da, horma sortuko du eta dagokion TwinSpace-ko orrian **txertatuko du**. Gero, ekipoei hor lan egingo dute.

Komenigarria da irakasleek **data bat finkatzea** horma kolaboratiboetan lanak partekatzeko.



2. Fasea: Praktikan jartzea:

1. Urratsa. Proiektuaren eta TwinSpace-aren aurkezpena

Irakasleak **proiektua eta kideak aurkeztuko** ditu; ikastetxe kideen webgune instituzionalean sartuko da. Lurraldeak mapan kokatuko dira.

TwinSpace lan egiteko espazio gisa **aurkeztuko** da. Ikasleak irakasleak eman dizkien gakoak erabiliz (erabiltzaileak eta pasahitza) sartuko dira TwinSpace-an. Haien **profilak editatu eta osatuko dituzte** eta haien ekiporekin harremanetan jarriko dira.

Ikasle bakoitzak egin beharrekoak:

- **Bere aurkezpena idaztea:** herria, jaiotza-lurraldea, hobbyak, familia, * *baina telefonoa edo posta-helbidearen moduko datu pertsonalik ez*
- Profilerak **argazki bat igotzea**, edo irudikatzen duen irudi bat
- **Aurkezpenaren orrira jo**, bere ekipoa zein den eta zein gai jorratuko duten jakin
- Bere taldekideei **mezuak uztea**, era positiboan eta hartu-emana sustatuko dutenak, haien hizkuntzan hitzak edo mezuak idatziz. Online itzultzaileak erabili daitezke.
- Bere ekipoa zein den dakienean, landuko duen gaiaren **horma kolaboratiboaren orrira jo**.



2. Urratsa. Ekipoek ikertu eta materiala biltzea

Ekipo bakoitzak bere lurraldeari buruzko informazioa bilatuko du esleitu zaion gaiarekin lotuta (hizkuntzak, festak, erlijioak, tradizioak, gastronomia...) eta gordeko du. Helburua ikerketa-lan txiki bat egitea da, hainbat fase izango dituen:

- **Talde nazionaleko ikasle bakoitzak**, haien artean adostutako lan-banaketari jarraiki, Interneten egokitu zaion arlo kulturala agertu eta azaltzen duen **informazioa** (irudiak, testuak, bideoak) **bilatu eta jasoko du**.
- Talde bakoitzak bere lurraldeari buruzko (bizi den lurraldekoa) informazioa antolatuko du eta **horman zein irudi, testu eta bideo partekatu erabakiko du**. Oso kontuan izan beharko du zein lurraldez hitz egiten ari den argi eta garbi ikusi behar dela.

3. Urratsa. Kasuan kasuko horma kolaboratiboan parte hartzea

Kide den lurralde bakoitzeko taldeez osatutako ekipo bakoitzak **egin dituen ikerketen emaitzak gehituko ditu dagokion horma kolaboratiboan**.

Urrats honetan, ikasleek fase honetarako aurreikusten den saio bakoitzean bi jarduera egingo dituzte:

- Irakasle koordinatzaileek aldeztu aurretik adostutako egunean, ekipoek, egin duten talde-lanaren emaitza diren eta partekatu nahi dituzten **irudi eta testuak horma kolaboratibora igoko dituzte**.
- Bigarren saioan, ikasle-talde bakoitzak eta haien irakasle koordinatzaileek **arlo guztietako horma kolaboratiboak bisitatuko dituzte** eta gainerako lurraldeek partekatu dituzten irudiak eta testuak **irakurri eta komentatu**ko dituzte.
- **Foroetan egingo diren galderak** prestatuko dira.
- **Proiektuaren Egunerokoan** proiektuaren faseak nola garatu diren **idatziko da**.



4. Urratsa. TwinSpace-ko Foroetan parte hartzea

Lantzen den arlo kultural bakoitzari dagokion foroan, ikasleek gainerako lurraldeek emandako informazioa irakurri eta hari buruzko **galderak egingo dituzte** interesatzen zaizkien edo deigarriak iruditzen zaizkien alderdiei buruz. **Ikasleek galderak erantzun eta erantzunak irakurriko dituzte**.

5. Urratsa. Inprimatu eta collage batean erakustea

- Irakasleek eta ikasleek **horma kolaboratibo digitalak PDF-n** gordeko dituzte. Ondoren, **inprimatu** eta ikastetxean erakutsiko dituzte. Horretarako horma bakoitzean partekatutakoa moztu eta horma-irudi batean era sortzailean itsats dezakete, **collage bat osatuz**.
- Beste aukera artistikoago eta neketsuago bat **ikastetxeko hormaren bat margotzea** da. Horretarako parte hartu duten lurralde guztiek horma kolaboratiboetan egindako ekarpenak irudikatuko dituzten graffitiak, irudiak edo sinboloak margotuko dira. Ikastetxearen baimena behar da eta ikasleek zein irakasleek prestakuntza artistiko espezializatuagoa behar dute; gainera, ikastetxeen aukeren araberakoa da.
- **Erakusketen argazkiak** aterako dira eta proiektuaren Egunerokoan iruzkin bat idatziko da.

3. Fasea: Datuak jasotzea eta jakitera ematea

- Proiektua hasten den unetik jardueren orriak, **informazio orokorra** eta horma **kolaboratibo digitalak** dituztenak, publiko egingo dira.
- **Proiektuaren Egunerokoan** idatziko da. Parte hartzen duen ikastetxe bakoitzean proiektua nola garatu den kontatuko da. Astero, lurralde bakoitzeko ikasle batek iruzkin bat egingo du, eta proiektuan lan egiten agertzen duen argazki bat erants dezake.
- **Proiektuari buruzko informazioa argitaratuko da ikastetxearen webgunean** eta **sare sozialetan**, adibidez, ikastetxearen Facebook edo Twitter profiletan.
- **Ikastetxearen webgunean TwinSpace-rako esteka zuzen bat** jarriko da.
- **Ikastetxearen telebistan (tb)** (departamentuek gauzatzen dituzten jardueren berri ematen duena) **proiektuaren argazkiak argitaratuko dira**.



AURREIKUSITAKO PRODUKTUA(K)/EMAITZA(K)

- **Horma kolaboratibo digitalak**, parte hartzen duten lurraldeen gizartearen alderdi kulturei buruzko informazioa dutenak
- **Horma-irudi kolaboratiboen collagea-erakusketa** ikastetxean

TWINSPECKO TRESNAK/ KANPOKO 2.0 TRESNAK

- TwinSpace-ko profil indibiduala, orriak, azpi-orrialdeak, TwinSpace foroa, Materialak (Karpetak)
- **Horma kolaboratibo digitalak** sortzeko programak, Padlet edo antzekoak adibidez

- Facebook, Twitter, Google+ proiektua jakitera emateko

DENBORALIZAZIOA

- 1. Saioa: **Proiektua eta kideak** aurkeztea.
- 2. Saioa: **TwinSpace-n sartzeko gakoak** banatzea. **Proiektuaren Egunerokoa** hastea.
- 3. Saioa: **Profilak** osatzea, proiektuko kideekin harremanetan jartzea.
- 4., 5., 6. Saioak: Ekipo nazional bakoitzak **informazioa bilatu, ikertu eta materiala jasotzea**. Saioen argazkiak ateratzea eta proiektuaren Egunerokoan proiektuaren garapenari buruzko sarrerak idaztea.
- 7., 8. Saioak: **Horma kolaboratiboan** parte hartzea.
- 9., 10., 11. Saioak: Foroetan parte hartzea.
- 11., 12. Saioak: **Ikastetxean horma-irudiak inprimatu, osatu eta erakustea**. Argazkiak eta proiektuaren Egunerokoan sarrerak egingo dira.